

HH2. KOMUNA IKAS-EGOERA

A. IDENTIFIKAZIOA

Izenburua	Lizentzia
KOMUNEKO BUELTA	
Maila	Saio kopurua
HH2 (2 urte) - Taldeak heterogeneoak dira adinari eta gaitasunari dagokienez.	Ikasturte osoan garatuko da.
Inplikaturiko eremuak	
Harmonian hazten Ingurunea ezagutzea eta esploratzea Komunikazioa eta errealitatearen adierazpena	

B. IKAS-EGOERAREN ESPARRUA EDO IKUSPEGIA

Testuingurua.

Haur-hezkuntzan garrantzi handia du osasun-, higiene- eta nutrizio-ohitura onak hartzeak. Ohitura horiek, norberaren gorputza eta bizi diren espazioak zaintzen laguntzeaz gain, haurraren autonomia-prozesuan funtsezkoak dira. Haur- Hezkuntzako ikastetxeak eremu pribilegiatua izan behar du nortasuna eta autonomia pertsonala eraikitze prozesuak aberasteko. Haurren beharrian indibidualetara egokitutako esku-hartze hezitzailea eskaini behar zaie, lasaitasun eta segurtasun afektiboko giro batean.

Abiapuntua.

2 urteko umeen geletan komuna eta aldagela gela barruan dago. Komuneko buelta, egunero behin baino gehiagotan gauzatzen den gertakaria da. Behar horri dagokion leku, momentu, espazio, denbora eta esku-hartze egokia eskeintzea ezinbestekoa da. Ongi zaude? Komunera joan nahi duzu? Pixalarri zara? Goazen pardela aldatzera...

Esfinterren kontrolean eta arropen manejoan gelako umeen garapen maila anitza da, bakoitza dagoen tokitik aurrera egingo du. Beste alde batetik, ume batzuk beldurtiagoak dira, eta hori ere kontutan izango dugu

Xedea edo helburua

Umeak komunean egoteko prosezuan eta ibilbidean modu lasai batean egin dezaten aurrera:

- Batzuek fardela aldatzeko buelta lasai eta ondo egitea
- batzuek fardela utzi eta txisa/kaka komunean egiten hastea, eta onartzea
- Bete batzuek, fardela kendu dutenak, autonomia irabazten joatea eta gero eta hobeto moldatzea arropak atontzen.

C. IKAS-EGOERAREN CURRICULUM- ETA ANTOLAMENDU-ELEMENTUAK

Funtsezko konpetentziak

- Hizkuntza- komunikaziorako konpetentzia. (HKK)
- Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.(KPSII)
- Herritartasunerako konpetentzia. (HK)
- Ekintzailtza-konpetentzia. (EK)

Eremua: **Harmonian hazten**

Konpetentzia espezifikoak (Harmonian hazten)

Ebaluazio adierazleak

1. Gorputzaren ezagutza eta kontrola garatzen, eta hainbat estrategia eskuratzen joatea, haien **ekintzak inguruko errealitatera era seguruan moldatuz** norberaren **irudi egokia eraikitze**ko.

1.1. Ekintzak eta erreakzioak egoera bakoitzera egokitzea inguruarekin izandako interakzio ludiko eta espontaneo bidez, mugimendurako eta hautemateko dituen aukerak esploratuz eta zehaztasuna, koordinazioa eta intenzionalitatea hobetuz.

1.2. Onarpena eta errespetua erakustea norbere gorputzarekiko eta besteenarekiko, horren ezagutza pixkanaka hobetuz.

1.3. Segurtasuna, nahitasuna eta konpetentziarekin lotutako sentimenduak adieraztea ekintza bakoitzean.

1.4. Denboraren oinarritzko jakintzen inguruko ezagutzak erabiltzea, eguneroko bizitzako jarduera eta errutinetan eta beste gertaera batzuetan bere burua denboran kokatzeko.

2. Progresiboki **emozioak ezagutzea, adieraztea eta erregulatzea** beharrak eta sentimenduak adieraziz, **ongizate emozionala eta**

2.1. Emozioak eta sentimenduak adieraztea, pixkanaka kontzientzia emozionala eta erregulazio emozionalerako estrategiak garatuz.

segurtasun afektiboa lortzeko.	2.2. Beste pertsona batzuekin harremanak izatea nahitasuna onartuz eta adieraziz modu aske, seguru, begirunetsuan, estereotipo sexistetatik urrun.
	2.3. Ezbehar txikiei aurre egitea, hobetzeko gogoia adierazten duten jarreraren bidez eta laguntza eskatuz eta eskainiz.
3. Eredu, arau eta ohiturak bereganatzea, aukera propioetan konfiantza eta lorpen sentimenduak garatuz, ekologiarekiko eta gizartearekiko arduratsua den bizimodu osasuntsua bultzatzeko.	3.1. Norberaren eta ingurunearen zaintzarekin lotutako estrategiak eta ohiturak eskuratzea.
	3.2. Eguneroko dinamika egituratzen duten jardueren, erritmo biologikoen eta jarraibide soziokulturalen denbora segida ezagutzea eta aurreratzea, prozedura eta jarrera zehatzekin lotura ezarriz (Jardueren denborazko segida, erritmo biologikoak eta eguneroko bizitza egituratzen duten jarraibide soziokulturalak ezagutu eta aurreratzea, elementuekin, prozedurekin eta jarrera zehatzekin lotuz. (zuzenduta))
4. Berdintasun baldintzak dituzten gizarte-interakzioak ezartzea, <u>laguntasunaren, errespetuaren eta enpatia</u>ren garrantzia <u>balioetsiz</u>, balio demokratikoetan eta giza- eskubideen errespetuan oinarrituta bere nortasun propioa eraikitzeko.	4.1. Lotura eta harreman osasuntsuak ezartzea, gainontzeko pertsonetikiko nahitasunezko eta enpatiazko jarreraren bidez.
	4.2. Lehenago gertuko ingurunean behatutako jokaera eta egoerak errepikatzea, errespetuan, enpatian generoen arteko berdintasunean eta giza eskubideen errespetuan oinarritutakoak, imitaziozko jolasaren bidez.
	4.3. Berdinekin gatazkak kudeatzen hastea pertsona helduaren bitartekaritzarekin, eta akordioak lortzeko dakartzan onuraz eta gogobetetzeaz jabetzen hastea.

Oinarrizko jakintzak (Harmonian hazten)

A. Gorputza eta gorputzaren kontrol progresiboa.

1. Norberaren eta inguruko pertsonen irudia deskubritzea eta ezagutzea. Desberdintasunak identifikatzea eta errespetatzea.
2. Zentzumeneren eta mugimenduaren bidez esploratzeko jakinmina eta interesa. Munduaren zentzumenezko integrazioa hautematerako aukeren bidez.
3. Esporazioa eta esperientzia aktiboak. Mugimendu libre ikaskuntza-eta garapen-iturri gisa.
4. Beste pertsona batzuekin eta beste objektu batzuekin harremana. Trebetasun berriak ikasteko iniziatiba eta jakinmina.
5. Eskuztatzearen bidezko esperientziak eta pixkanakako begien eta mugimenduen koordinazioaren kontrola objektu eta materialekin.
6. Mugimenduaren eta posturaren moldaketa eta pixkanakako kontrola eguneroko bizitzako egoeretan.
7. Egoera arriskutsuak identifikatu eta ekiditeko estrategiak.
8. Jolasa ongizaterako eta gozamenerako ekintza propio gisa. Esporaziozko jolasa, zentzu-mugimenezkoa...

B. Oreka eta afektibitatearen garapena.

1. Emozio-egoerak identifikatzeko eta egoera anitzetara moldatzeko estrategiak: itxarote-denborak, oinarrizko beharrek eta zaintzekin lotutako frustrazio txikiak.
2. Oinarrizko emozioen kausa eta ondorioak pixkanaka identifikatzeko jarraibideak.
3. Emozioen eta berezko adierazpen deigarrien onarpena eta pixkanakako kontrola.
4. Segurtasun afektiboa lortzeko estrategietara hurbilpena: laguntza bilatzea, kontaktu afektiboa eskatzea.

C. Norberaren zaintzarako osasuntsuak diren eta naturarenerako mesedegarriak diren bizitza-ohiturak.

1. Berezko erritmo biologikoen pixkanakako moldaketa taldeko errutinera.
2. Zaintzak eta oinarrizko beharrak.
3. Konprometuekin eta norberaren harmoniarekin lotutako errutina: ekintzen aurrerapena; gizarte-portaera arauak jatorrietan, deskantsuan, higiean, lekualdaketa, etab.
4. Elikadurarekin, higiearekin eta norbere garbitasunarekin, deskantsuarekin edo espazioaren garbitasunarekin lotutako ohitura jasagarri, ekologiarekiko eta gizartearekiko arduratsuak.
5. Osasunari mesede egiten dioten eta ongizatea dakarten ekintzak. Itsura osasuntsu eta garbia izateko interesa.

D. Interakzio soziokulturala ingurunean. Bizitza besteekin batera

1. Trantsizioa familia-taldek eskolako gizarte-taldera.
2. Lehenengo lotura afektiboak. Beste pertsonarekin interesaren zabalkuntza. Erreferentziatzeko pertsonarekin taldearen parte direla eta lotura afektiboa dutela sentitzea estrategiak.
3. Taldea eta eskola gizartearen kidego-talde gisa.
4. Maitasuneko eta errespetuzko harremanak.
5. Ohiturak eta portaeraren erregulazioa beste beharren arabera: entzutea, pazientzia eta laguntza.
6. Gatazkak kudeatzeko estrategiak.
7. Itxaroteko eta parte hartze aktiboa izateko jokabideak garatzea.
- Ekintza eta jolasaren ardura txikiak hartzeko estrategiak.
8. Ingurunean dituen ospakizunak, ohiturak eta tradizio etniko eta kulturalak.

Eremua: **Ingurunea ezagutzea eta esploratzea**

Konpetentzia espezifikokoak (Ingurunea ezagutzea)	Ebaluazio adierazleak
1. Materialen, objektuen eta bildumen ezaugarriak identifikatzea eta haien arteko loturak ezartzea, esplorazioaren, zentzumen-manipulazioaren eta tresna errazak erabiltzearen bidez, trebetasun logiko-matematikoak garatzeko.	1.1. Objektuen arteko loturak egitea oinarritzko ezaugarriak kontuan hartuta jakinmina eta interesa adieraziz.
	1.2. Eguneroko esperientziarekin lotutako oinarritzko kuantifikatzaile esanguratsuenak erabiltzea, eta jolasaren eta besteekiko interakzioaren testuinguruan erabiltzea.
	1.3. Oinarritzko nozio espazialei buruzko ezagutzak aplikatzea espazioetan kokatzeko, bai geldi, mugimenduan, norberaren gorputzarekin eta objektuekin jolastuz.
2. Metodo zientifikoaren prozedurak eta pentsamendu konputazionalaren trebetasunak garatzea pixkanaka, objektuak behatzeko eta manipulatzeko prozesuen bidez, ingurunea interpretatzen hasteko eta planteatzen diren egoerei eta erronkei sormenez erantzuteko.	2.1. Zailtasuna, erronkak eta arazoak kudeatzea interesez eta inizatibaz, ekintza sinpleagoz osatutako sekuentzietan banatuz.
	2.2. Hainbat estrategien bidez konponbide alternatiboak proposatzea, entzunez eta gainontzekoak errespetatuz.
3. Naturaren elementuak eta fenomenoak ezagutzea, eta naturan eragina duten ohiturekiko interesa agertzea, pertsonen bizitzan ingurunea modu iraunkorrean erabiltzeak, zaintzeak eta kontserbatzeak duen garrantzia jabetzeko.	3.1. Interesa adieraztea naturarekin lotutako proposamenekiko eta tokiekiko, baita ingurunekeko elementu naturalekiko ere. Naturako elementuak errespetatzea eta horiekin gozatzea.
	3.2. Bere inguruan ohikoak diren fenomeno atmosferikoak identifikatzea eta izendatzea eta eguneroko bizitzan dituzten ondorioak azaltzea.

Oinarrizko jakintzak (Ingurua ezagutzea)

A. Gorputzaren harremana ingurunearekin. Objektuak, materialak eta espazioak sormenez esploratzea.

1. Ingurunearen eta horren elementuak esploratzeko jakinmina eta interesa.
2. Zentzumenen bidez objektu eta materialak esploratzea.
3. Objektu eta materialen ezaugarriak identifikatzea. Esku-hartze desberdinek haiengan dituzten ondorioak.
4. Ordenean, elkarrekikotasunean, sailkapenean eta konparaketan oinarritutako loturak.
5. Oinarrizko zenbatzaileak testuinguruan jarrita.
6. Objektuekin eta norberaren gorputzarekin lotutako espazioari buruzko oinarrizko ezaugarriak.
7. Denborari buruzko oinarrizko ezaugarriak: aldaketa eta iraunkortasuna; segida eta aldiberekotasuna; lehenaldia, orainaldia eta etorkizuna.

B Esperimentazioa ingurunean. Jakinmina, pentsamendu zientifikoa, arrazoimen logikoa eta sormena.

1. Ingurunea aztertzea jarrera hauekin: interesa, jakinmina, irudimena, sormena eta harridura.
2. Jakintza berrien eraikuntza-prozesua: ezagunaren eta berriaren arteko harremanak eta loturak, aurreko esperientzien eta berrien artekoak; pertsona helduekin, maila berekoekin, ingurunearekin, etab. ikaskuntza garatzeko egiturak eta kalitatezko interakzioak.
3. Aldagaiak kontrolatzeko eredua. Ikerkuntzarako estrategiak eta teknikak: saiakuntza-errore metodoa, behaketa, egiaztatzea, galderak egitea.

C. Ingurune fisikoa eta naturalean ikertzea. Zaintza, balioespena eta errespetua.

1. Norberaren ekintzen ondorioak ingurune fisikoan eta natura-ingurunean.
2. Elementu naturalekin esperimendatzea.
3. Ohiko fenomeno naturalak: ondorioak haien eguneroko bizitzan.
4. Izaki bizidunak eta natura errespetatzea

Antolatutako jardueren proposamena:

1.- HASIERAKO FASEA:

Topagunean, talde handian, esfinterren inguruko elkarrizketak izango ditugu.

Haurren egoera psikoebolutiboa kontutan izango dugu eta tratamendu indibiduala egingo dugu.

Espazioaren antolaketa eta diseinua egingo da, irisgarritasunaren printzipioa kontutan izanda.

Familiekin harremanetan, ume bakoitzaren abiapuntua jakingo dugu. Eskolan eta etxean lan bateratua eta paraleloa egingo dugu.

2.- GARAPEN FASEA:

Ipuinak eta abestiak erabiliko ditugu.

Komuneko objektuak ezagutuko ditugu.

Arreta jarriko dugu umearen lorpen guztiak goraipatuz, gutxienekoak izanda ere. Umeentzat oso lagungarria da aurrerago doazen beste umeak komunean ikustea, haiek lasai ikustean besteak ere lasaitasunaz ohartzen dira, eta jarrera onean animatu egiten dira probatzera.

Hasieran, beti beraiekin joango gara komunera, eta apurka-apurka errefortzu hori kentzen joango gara.

Haurrei eskatuko diegu garbiketako, janzteko eta higiene jardueretan laguntzea. Adibidez, Eskuak zikin dauzkanean, eskuetan xaboia hartzeko eskatzea.

Jolas sinbolikoan aritutzen dira umeak: Panpinak jarri pixa eta kaka egiten, arropatxoak jantzi eta erantzi...

Haurren autonomia landuko dugu: Komunean jesartzen direnean utziko diegu katetik tira egiten, papera hartzen.

Umeak Komunean jesarten hasten garenean, hasieran oso kontuz egingo dugu, umeari lasaitasuna transmitituz (ez ikaratzeko); ahots -tonua zaindu ere. Pardela edo pixaohiala aldatzean, umea zutik aldatu daiteke, nagusiagoa sentiaraziz.

Denbora aurrera doan heinean, haur bakoitzak bere garapen eta aprendizaiaren arabera egingo du ibilbidea.

Komunera bakarrik joaten utziko dugu, beti ere nire laguntza eskeiniz eta behar duen segurtasun afektiboa ziurtatuz. Hezitzailearen hitz egiteko tonua lasaia eta hurbila izango da. Behar dituen denbora eskeiniko diogu eta bakoitza den modukoa onartuko dugu, beraien demandak errespetatuz eta feedbacka sortuz.

IDU

Ikasgelako ikasleen aniztasuna eta esfinterren kontrolaren ibilbidean dauden banakako estadioak kontuan hartuta, aniztasun horri guztiari erantzun behar diogu, gure metodologia ikasleen erritmo desberdinetara egokituz, eta beraz, IDU ikuspegia izango du.

I. printzipioa: Irudikatzeko modu ugari ematea

- 1. Pertzepziorako hainbat aukera ematea
- 2. Hizkuntzarako aukera ugari ematea
- 3. Ulermenerako aukerak ematea

II. printzipioa: Ekintza eta adierazpen modu ugari ematea

- 4. Interakzio fisikorako aukerak ematea
- 5. Adierazteko eta komunikatzeko aukerak ematea

III. printzipioa: Inplikatzeko modu ugari ematea

- 7. Interesa eta erakartzeko aukerak ematea
- 9. Autoerregulaziorako aukerak ematea

Antolaketa , metodologiak eta baliabideak

Espazioen erabilera

Espazioaren izaera:

amankomuna

Geruzak:

- Lehen geruza: **hormak**, zoruak eta sabaiak.
Komunetan, ura dagoenez, hormak baldosaz estalirik daude.

- Bigarren geruza: **altzariak** eta hauen antolaketa

- Hirugarren geruza: **materialak** eta baliabideak:

- Ipuinak: Txomin komunean eta Begiratu dezaket zure pixoihalean?
- Abestiak: Goazen komunera (Ene kantak) eta Goazen goazen.
- Olerkia: Martin zikin (Purru eta muki, garbi ezazu ipurdi hori).

- Laugarren geruza: **pertsonak**

- **Irakasleak-umeak:**

Bi urteko umeen gelan **fase ezberdinetan** egon daitezke haurrak. Oraindik esfinterren kontrola ez duten momentuan edo txisa eta kaka komuneak egiten dakitenak.

Adin honetan umea ez da oraindik guztiz hitzeko izakia, horregatik, bereziki sentibera da hitzekoa ez den komunikazioarekin; fase horretan haurrarekiko komunikazioa ez da hitzen edukian oinarritzen, baizik eta ahotsaren tonuan, gorputzaren jarreretan, begiradan... Beraz, **zaintza-egoerak** tresna garrantzitsu jotzen dira hezkuntzarako, izan ere, haurraren komunikazio-tresna sentiberenari eragiten dio: **gorputzari**, hitzekoa ez den komunikazioari. Zaintza-momentu horretan zer eskaintzen diogun, horrek eragin zuzena izango du haren **niaren eraikuntzan**.

Zaintzatzat ez dugu ulertzen gorputzak biologikoki edo fisiologikoki dituen beharrei erantzuna ematea. Zaintza bi pertsonen arteko harremana da, eta haur edo pertsona batek dituen beharrian fisiko, biologiko eta psikologikoei erantzuten die. **Harreman hori artatsua, iraunkorra, adeitsua** eta konprometitua da; ez da momentu batean gertatzen den ekintza puntuala.

Zaintza-jarrerak egunero errepikatzen dira, eta horrek berekin ekar dezake nolako garrantzia duen ahaztea; horregatik azpimarratu nahi dugu zaintza jarduerak duen jarrera psikologikoa.

Hizkuntza arloan ere, **genitalen izenak** euren izenez izendatzea, umeak txikitatik izenak ikasi eta normalizatzea ere komenigarria ikusten dugu (zakila, alua..)

- **Umeak-umeak**

Umeak beste umeak ikusiz eta imitatuz animatu egiten dira, beldurra kentzen asko laguntzen du beste batzuk modu lasaian ikusteak.

Hautatutako printzipio eta estrategia metodologikoak. Taldekatzeko moduak eta talde-lana

Fardelak goizean eta siesta eta gero aldatzen ditugu.

Komunera joatea: kontutan izanda 2 urteko umeak bakoitzak bere ibilbidea eginez puntu desberdintan dagoela, banakako eskuhartzea egiten dugu. Orokorrean, siestatik altzatzen direnean, komunean jartzea eskeintzen diegu, ohitzen joateko, beldurra kentzeko... Ikusi dugunez, beste umeak ikusteak ere laguntzen die.

Baliabide pertsonalak: Hezitzaileen esku-hartze estilo bateratua (Protokoloak, arauak...)

Protokoloak,

Komuneko bueltan ere, irakasleonek eta jagoleen estilo bateratua egitea komeni da. Esfinterren kontrolean, ume bakoitza prozesuaren estadio baten egongo da, eta irakaslee eta jantokiko jagoleen artean koordinatu behar gara umearen jarraipen egokia egiteko.

Umeen segurtasuna zaindu, hitz egiteko tonua lasaigarria, komunean ezertzen ditugun lehen aldietan mugimendu suabeak, begirada, kontaktoa... (umeak ikaratzea ekiditeko)

Hizkuntza arloan ere, **genitalen izenak** euren izenez izendatzea, umeak txikitatik izenak ikasi eta normalizatzea ere komenigarria ikusten dugu (zakila, alua..)

Araua:

Segurtasunagaitik, komunean ez dira ibiliko jolasean irakaslea egon gabe.

Ebaluazio-prozesua. Ebaluazio hezitzailearen erabilera	
Haurren eboluzioa (lorpen adierazleak)	
Atal honetan, haurren eboluzioaren erakusleak jasoko ditugu. Erakusle hauek, espazio horretan eskaintzen ditugun material eta proposamenekin lotura zuzena izango dute, egunerokoan antzeman daitezkeenak.	
HELBURU DIDAKTIKOAK :	LORPEN ADIERAZLEAK
Sentsazio desberdinak bereizten ikastea. (1go eremua KE2) Besteen beharrak errespetatzea.(1go eremua KE1 ETA KE4) Esfinterren kontrolarekin lotutako oinarrizko beharrak adierazten hastea. (1go eremua KE1) Behar fisiologikoetarako une eta leku egokiak eta ez direnak bereiztea.(1go eremua KE3) Esfinterrak kontrolatzearekin lotutako autonomia pertsonaleko ohiturak hartzen hastea.(1go eremu KE1)	Busti edo lehor dagoenean konturatzen hasten da. Garbi eta zikin dagoenean konturatzen hasten da. Lagunak errespetatzen ditu. Komunera joateko beharra adierazten du. Pixa eta kaka komunean egiten du. Janzteko eta eranzteko gai da. Esfinter kontrola eskuratzeko bidean, interesa erakusten du.

Ongizate psikiko eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea. (1go eremua 2)

Bere beharrak adierazten hastea. (3.eremua KE1)

Ahokotasuna eta entzumena lantzea. (3. eremua KE2)

Hiztegia: gorputz atalak (genitalak, alua,zakila eperdia) arropak (kulero, galtzontzilo),busti, garbitu, fardela; eta komunean dauden objektuak.

Sentsazioak: busti/lehor eta zikin /garbi.

TREBETASUNAK:

Esfinterren kontrola. Sentsazioen kontzientzia

Autonomiaren garapena. Arropak manejatu, komunean eseri.

Bere buruaren kontzeptu on bat bereganatzea.

Higiene-ohiturak (eskuen garbiketa, mukiak, ipurdi eta genitalen garbiketa...)

Lagunekiko errespetua izatea.

Espazioen zaintza.

Pardela aldatzerakoan lasai dago.

Komunean lasai dago.

bere beharrak adierazteko gai da (Pixalarri, kakalarri, kaka egin dut (edo" kaka"))

Mezuak ulertzen ditu
Mezuak sortzen ditu.

Maisu-maistren ebaluazioa

Lantzean behin, irakasleonekin artean balorazioa egingo dugu:

- zelan doan aurreikusi dugun plangintza umeen jarraipena egiteko.
- Planifikatutakoaren arabera, prozesuan umeen aurrerapena ematen ari den.
- Ea irakasle-jagole koordinazioa ondo dagoen, zerbait falta den. Jagoleena ere jaso, eta berrikus.

Ebaluaziorako teknikak, erremintak eta tresnak

Teknika: Behaketa sistematikoa

- Tresnak:
 - esfinterren kontrol orria,
 - gurasoekin izandako informazio trukaketa,
 - gelako egunerokoa...